

# KANALAK

Gure produktua batez ere, adin guztietako emakumeei zuzenduta dago, gaur egun, emakumeen aurkako biolentzia erasoak gero eta ugariagoak direlako. Gure helburua pultsera honekin eraso horiei aurre egitea da. Hala ere, pertsona guztiek erosi ditzakete, izan ere, suertatu daitezkeen edozein arazori aurre egiteko baliabide bat sortuko dugulako. Beraz, kanal hauek erabiltzea erabaki dugu:

**Komunikazio-kanalak:** Gure produktua aurkezteko publizitatea erabiliko dugu. Irargariak gehienetan, oso garestiak direnez, gaur egungo teknika berri batekin saiaturako gara; sare sozialak. Hauen bidez ikusgarriak diren kontu eta profilei gure produktua bidaliko diegu, honen ezaugarriez berri emanez, gero haiek kontuetako jarraitzaileei erakustean, gure produktua erakargarri ikus dezaten.

**Banaketa-kanalak:** Dendak eta komertzioak hornitzeko mezularitza-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batekin akordio batera iritsiko gara, igorpenak prezio baxuan egin ahal izateko. Komertzialak ere kontratatuko ditugu denda eta komertzio fisikoei produktuaren berri emateko.

**Salmenta-kanalak:** Gure pultsera *online* salduko dugu enpresa bezala, baino denda fisikoei ere eskainiko diegu (Carrefour, FNAC...) nahi izanez gero, gure produktua bezero gehiagorengana errazago iristeko. Kanpaina bereziak ere egingo ditugu, hirietako erdigunetan stand-ak jarritz, produktua probatu eta hobetu ezagutu ahal izateko.